

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Lanbide Ekimenak Zentroa (Gernika-Lumo)****Lanbideko enplegu planen kontrataziorako dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartzea.**

Enplegua sustatzeko araudia 2019ko martxoaren 25ean EHAA-n argitaratu zela kontuan harturik, Gernika-Lumoko Udalak dirulaguntzak jasotzeko eskaera egin zuen.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak 2019ko uztailaren 9ko ebazpenen Gernika-Lumoko Udalarari 294.533,37 euroko dirulaguntza ematea ebatzi zuen. Dirulaguntza horretatik 182.033,37 euro kontratazio dirulaguntzetara (2. Motako ekintzak) bideratuko dira.

Azkenik, Lanbidek, 2019/07/15 ko ebazpenean, Gernika-Lumoko Udalarari kontrataziorako laguntzen programarekin hasteko baimena ematen dio, R/19-LPE-14B espediente zenbakiarekin.

Aurreko guztia kontuan hartuta, Lanbide Ekimenak Fundazioaren Presidenteak,

ZERA ERABAKITZEN DU:

1. Enpresetara bideratuko diren kontrataziorako dirulaguntzen oinarriak onartzea.
2. Aipatutako dirulaguntzen oinarriak indarrean jartzeko eta ezagutzera emateko, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean publikatzea.

Gernika-Lumon, 2019ko urriaren 16an.—Presidenteak, Jon Lejarraga Enbeita



**BUSTURIALDEA ESKUALDEAN ENPRESETAN KONTRATATZEKO LAGUNTZA
EKONOMIKOEN UDAL PROGRAMAREN DEIALDIA. LANBIDE-EUSKAL
ENPLEGU ZERBITZUAK DIRUZ LAGUNDUTAKO ENPLEGUA SUSTATZEKO
TOKIKO EKINTZENTZAT DIRU-LAGUNTZEN DEIALDI BARRUKOA
(2019KO OTSAILAREN 28KO EBAZPENA, EHAA 2019KO APIRILAREN 25EAN)**

1. Oinarria. — Xedea eta aplikazio eremua

Oinarri hauen xedea, Busturialdea eskualdeko enpresetan langabeak kontratatu ditzaten sustatzeko laguntzak arautuko dituzten baldintzak arautzea da. Kontratuak 3 hilabetez jarraian edo gehiago iraungo dute, lanaldi osoan edo %50eko gutxienezko lanaldian, Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean eta indarrean dagoen edozein kontratazio modalitatean egin ahal izango dira, trebakuntza eta ikaskuntza kontratuan izan ezik, lan merkatua erreformatzeko premiazko neurriei buruzko uztailaren 6ko 3/2012 legearen arabera.

2. Oinarria. — Enpresa/pertsona onuradunen betebeharrak

Programa honen barruko diru-laguntzen onuradun izan ahal izango dira, batetik, irabaziko jarduera bat egiten duten enpresak, edozein delarik ere euren forma juridikoa, eta, bestetik, irabazi-asmorik gabeko entitateak (fundazioak, elkarteak, GKEak,...), baldin eta zerga eta lan arloko betebeharrak egunean badituzte eta betekizun hauek betetzen badituzte:

- a) Enpresaren egoitza Busturialdean edukitzea.
- b) Diruz lagunduko diren jarduerak Busturialdeko udalerriren batean garatzea zuzenean.
- c) Kontratazio hauek, diruz lagundutako kontratudun pertsonak lanean hasi aurreko 3 hilabeteetan, enpresak izan duen langile kopuruaren bataz-bestekoaren gehikuntza garbia suposatuta behar dute; eta gehikuntza horrek, diruz lagundutako epean iraun beharko du.

Bestalde, enpresa bakoitzak formalizatutako kontratu baten eskabide bakarra aurkeztu ahal izango du.

Plantillaren igoera garbia kalkulatzeko, honako hau hartuko da kontuan: diru-laguntza eskatzen den kontratazio-egunean alta emandako langileen batez besteko plantilla, kontratazio egunaren aurreko hiru hilabeteetan alta emanda izandako langileen batez besteko plantillarena baino handiagoa izatea. Egoera hori egiaztatzeko, Gizarte Segurantzak egindako «alta emanda dauden langileen batez besteko plantillaren bi txosten» entregatu beharko dira; bata, kontratuaren egunaren aurreko hiru hilabetei dagokiena, eta bestea, diru-laguntza eskatzen den kontratazioaren egun berekoa; horrekin batera, kontratazio-eguneko enpresaren lan-bizitzaren txosten bat ere bai.

Adibidea: 2019ko abuztuaren 22an egindako kontratu baten plantillako igoera garbia egiaztatzeko eman beharreko txostenak honako hauek izango lirateke:

- Altan dauden langileen batez besteko plantillaren txostena, 2019ko maiatzaren 22tik 2019ko abuztuaren 21era arte.
 - Altan dauden langileen batez besteko plantillaren txostena, 2019ko abuztuaren 22an.
- d) Kanpoan geratzen dira honako pertsona hauen lan-kontratazioak: pertsona horiek kontratatzeagatik oinarri hauetan enpresa berebetean jadanik laguntza jasotakoak.

3. Oinarria. — Kontratatutako diren pertsonen betekizunak

— Kontratazioaren unean enplegu eskatzaile bezala Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan inskribatutako langabe moduan egotea. Datu hau, DARDE (Langabeziako Alta eta Lan Eskaria Berriztatze Dokumentua) edo bere kasuan, inskripzio aldiaren ziurtagiriarekin aurkeztuta kreditatu beharko da.



- Kontratatutako langabetuak Busturialdekoak izan behar dira, tokiko enplegua sustatzeko helburuarekin. Hau ziurtatzeko, pertsona horren errolda agiria aurkeztu beharko da.
- Ez dute diru-laguntzarik izango kontratazio hauek: ezkonkidearena, ondorengoen ezta enpresaburuarekin, enpresaren kontrola daukatenekin, zuzendaritza karguak dituztenekin edo enpresa eskatzaileko administrazio organoetako kideekin bigarren mailara arteko (berau barne) odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko harremanik duten gainerako senideena, ezta administrazio organoetako kideenak ere.

4. Oinarria. — Diruz lagun daitezkeen ekintzak

Oinarri hauen helburua 3. oinarrian ezarritako baldintzak betetzen dituzten langabetuen lan kontratazioa egiteko laguntzak ematea arautzea da. Kontratazio hauek 3 hilabete edo gehiagoko iraupena izango dute eta Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean egingo dira.

Kontratazioetan (nominak eta gizarte segurantza) diruz lagundu ahal diren hilabeteak 2019ko martxoak 26 eta 2020ko ekainaren 30era bitartekoak dira.

Lan kontratua eskatzen den gutxienezko iraupena baino lehenago bukatzen bada, emandako diru laguntzaren itzulketa suposatuko du.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eskatzen duen bezala, diruz lagunduko diren kontratazio guztien %40a emakume langabetuak kontratatzen dituzten enpresentzat izan behar da eta baldintza hau betetzen dela egiaztatzeko, aurkeztutako eskaeren azterketa bat egingo da. Nahiz eta diru laguntza maximoak aurreikusita izan, azkenik emango den laguntza kopurua murriztu daiteke, emakumeen kontratazio kopuru minimoa bermatzeko.

5. Oinarria. — Zenbatekoa

Kontratazio tartearen arabera, hurrengo zenbatekoko laguntza bat ezartzen da, itzuli beharrik gabekoa:

- Lanaldi osoko hiru hileko lan-kontratu bakoitzeko, gehienez 3.000 euroko laguntza; lanaldi osoko sei hileko edo gehiagoko lan-kontratu bakoitzeko, gehienez 6.000 eurokoa. Denbora partzialeko kontratuen edo hiru eta sei hilabete bitarteko kasuan, diru-laguntza lanaldiaren edo lan egindako denboraren proportzionala izango da.
- Ez da diruz lagunduko formazio eta ikasketa kontraturik, ezta %50 baino gutxiagoko lanaldi partzialak.
- Laguntzaren zenbatekoa ezin izango da kontratatuko pertsonen soldaten kostua eta gizarte segurantzakoaren %75 baino handiagoa izan.
- Inola ere ezin izango da diruz lagundu 2020ko ekainaren 30 osteko soldata kosturik.

6. Oinarria. — Ordaintzeko modua

Enpresak azken justifikazioa egin ondoren eta Lanbide-Ekimenak txosten teknikoa egindakoan, diru laguntza ordainketa baten egingo da.

Laguntza ordaintzea dokumentazio osagarria aurkezteko baldintzapean egiten bada, deialdiaren 12. oinarrian xedatutakoari jarraituko zaio.

7. Oinarria. — Enpresa onuradunen betebeharrak

Laguntza jasotzen duten pertsonak/enpresek betebeharrak hauek izango dituzte:

- 7.1. Udalaren egiaztatze ekintzen mende jartzea, baita bertako Kontu-hartzaile nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako ekintzen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitako mende ere.
- 7.2. Diru-laguntza emateko orduan kontuan izandako edozein inguruabar objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, Udalari jakinaraztea.



- 7.3. Zerga-betebeharrak bete eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordaindu direla egiaztatzea.
- 7.4. Laguntza eskubidea ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta agiri osagarri oro Gernika-Lumoko Lanbide-Ekimenak Erakunde Autonomora eskura jartzea, dokumentazioa Gernikako-Lumoko Lanbide-Ekimenak Erregistro Orokorrean aurkeztuta. Alondegia, 6, 48300-Gernika-Lumo, ordutegi honen barruan: Astelehenetik ostiralera; 8:00-15:00.
- 7.5. Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste laguntza edo diru-laguntzarik eskatu edo/ eta eskuratuz gero, organo emaileari jakinaraztea.
- 7.6. Diru-laguntza jasotzen duten kontratuak gutxienez 3 hilabeterako egitea.

8. Oinarria. — Aurrekontua izatea

2020ko udal aurrekontuan 182.033,37 euroko zuzkidura ekonomikoa dago aurreikusita.

Aurrekontua izatearen mendekoak izango dira diru-laguntzak, eta deialdi honetako 13. oinarrian ezarritakoa aplikatuta emango zaie lehenetsia diru-laguntzei.

Egotzi behar zaizkioneko aurrekontuan helburu horretarako nahikoa eta egokia den krediturik egon ezean, oinarri hauen eraginkortasuna bertan behera geratuko da laguntza berriak emateari dagokionez. Gertakizun horri publizitatea ematearren, Lanbide Ekimenak kreditua noiz ahitu den adieraziko duen ebazpena emango du eta bere web orrian argitaratuko da.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak diruz lagundutako Eskualdeko Enplegu Planaren barruan sartzen dira laguntza hauek.

9. Oinarria. — Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Oinarri hauetan araututako laguntzak honako hauekin ez dira bateragarriak izango: kontzeptu eta helburu beragatik administrazio edo erakunde publiko eta pribatuek emandako beste edozein diru-laguntza edo laguntza lortzearekin, Gizarte Segurantzak emandako hobariak salbu.

10. Oinarria. — Nahitaezko agiriak

Agiri hauek erantsi beharko zaizkie oinarri hauetan diren diru-laguntzak eskuratzeko eskabideei:

- Diru-laguntza eskatzeko eredu normalizatua: I. Eranskina beteta.
 - 1. orrialdea: Eskaera.
 - 2. orrialdea: Enpresa edo entitateari buruzko informazioa.
 - 3. orrialdea: Diruz laguntzeko kontratuen eskaera.
 - 4. orrialdea: Hirugarrenen alta agiria.
 - 5. orrialdea: Zinpeko aitortpena.
 - 6. orrialdea: Kontratazioaren datuak.
- Pertsona fisikoa denean:
 - NANren kopia.
 - Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordaindu zaizkiola egiaztatzen duen ziurtagiria.
 - Foru Ogasunari ordaindu beharrekoak ordaindu zaizkiola egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Pertsona juridikoa denean:
 - IFKren kopia.
 - Enpresa eratzeko eskrituren fotokopia.
 - Ordezkatzeko ahalmena duen pertsonaren NANren kopia.



- Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordaindu zaizkiola egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Foru Ogasunari ordaindu beharrekoak ordaindu zaizkiola egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Ogasunak emandako ziurtagiri eguneratua, JEZan altan dagoela ziurtatzen duena.
- Kontratuaren xedeko pertsonaren NANren kopia.
- Kontratatu den pertsona, kontratazio egunean langabetua dela eta Lanbiden enplegu eskatzailea dela dioen ziurtagiria (3. oinarria).
- Lan kontratuaren kopia eta haren jakinarazpena Euskal Enplegu Zerbitzuari.
- Kontratututako pertsonaren errolda agiria.
- Kontratututako pertsonaren lan-bizitzaren txosten eguneratua, Gizarte Segurantzak eskatutako diru-laguntzaren xedeko kontratua hasi ondoren igorrita (Informazio honen xedea kontratatutako pertsona langabezian zegoela egiaztatzea da).
- Gizarte Segurantzako enpresaren lan-bizitzaren ziurtagiria, kontratazioa egin den egunekoa.
- Alta egoeran dagoen enpresako langileen batez besteko kopuruaren txostena, Gizarte Segurantzak kontratazio baino hiru hilabete lehenago igorrita. (Informazio honen xedea langileen kopuru garbia gehitu egin dela egiaztatzea da, 2.c) oinarrian ezarritakoaren arabera).
- Alta egoeran dagoen enpresako langileen batez besteko kopuruaren txostena, Gizarte Segurantzak kontratazio egunean igorrita. (Informazio honen xedea langileen kopuru garbia gehitu egin dela egiaztatzea da, 2.c) oinarrian ezarritakoaren arabera)

Justifikazioa

Diruz lagunduko den epea amaitu ostean (2020ko ekainak 30), 15 egun izango ditu dokumentu hauek aurkezteko:

- Amaierako justifikazioa. II. Eranskina beteta.
- Alta emanda dagoen enpresaren langileen batez besteko kopuruaren txostena, Gizarte Segurantzak igorrita, kontratua hasten denetik diruz lagundutako denboraldia amaitu artekoa (informazio honen xedea diruz lagunduriko kontratazioarekin eskuratutako langileen kopuru berria mantentzen dela egiaztatzea da, 2.c oinarrian ezarritakoaren arabera).
- Laguntzaren xedeko aldi diruz lagunduriko kontratuaren nominen kopia.

11. Oinarria.— Eskaerak aurkeztea

Deialdi honetan ageri den eredia baliatu beharko da laguntzak eskuratzeko eska-bideak egiteko. Gernikako-Lumoko Lanbide-Ekimenen Erregistro Orokorrean (Gernika-Lumoko Lanbide-Ekimenak. Alhondiga, 6, 48300-Gernika-Lumo) aurkeztuko dira, agiri guztiekin batera, ordutegi honetan: Astelehenetik ostiralera: 8:00-15:00.

Oinarri hauen iragarpen ofiziala egin eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira eskaerak, beti ere ondoko epe hauek kontuan izanda:

- Eskabideak aurkezteko epea, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita, 2020ko martxoaren 27arte izango da.
- Kontratuak 2019ko martxoaren 26 eta 2020ko martxoaren 9ra bitartean gauzatu beharko dira.

Enpresek nahiz interesdunek eskabidea aurkezteak, oinarri hauek onartzen dituztela esan nahiko du.

12. Oinarria.— Akatsak zuzentzea

Diru-laguntzetarako eskabideak ez badituzte oinarri hauetan xedatutako baldintzak betetzen, edo bertan eskaturiko agiririk eransten ez bada, 15 eguneko epea emango



zaie interesdunei akats eta okerrak zuzendu edo falta diren beharrezko agiriak ekar ditzen. Halaber, ohartaraziko zaie, hala egin ezean eskaria bertan behera utzitakotzat joko dela eta besterik gabe artxibatuko dela.

13. Oinarria. — Prozedura

Lanbide-Ekimenak-eri dagokio oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzen kudeaketa. Hautatze eta jarraipen batzorde bat eratuko da horretarako, Bermeo, Mundaka eta Sukarrietako Behargintza eta Gernika-Lumoko Lanbide Ekimenak eskualdeko garapen agentzia bietako langileek osotua. Batzorde honek aztertu eta ebaluatuko ditu aurkeztutako eskabideak.

Hautatze eta jarraipen batzordeak proposamena egin ostean emango edo ezeztatuko dira diru-laguntzak Gernika-Lumoko Lanbide-Ekimenaren Lehendakariaren ebazpen bidez.

Eskaerak hurrengo puntuazioak jarraituz barematuko dira, ondoren kontzesio erabakia hartuko da.

Kontratazeko lehentasuna duten kolektiboak

- Emakume langabea: puntu 1.
- DBE titularra edo onuraduna den pertsona langabetua: 2 puntu.

Kontratuaren iraupena

- 3 eta 6 hilabeteren arteko iraupena: puntu 1.
- 6 hilabete edo gehiagoko iraupena: 1,5 puntu.
- Iraupen mugagabea: 2 puntu.

Kontratuaren jardunaldi mota

- Lanaldi osoa: puntu 1.
- Enpresen arteko berdinketa gertatzen bada, ondorengoek hautsiko dute berdinketa:
 - Sarrera hurrenkera laguntza eskaeraren erregistroan (eskaera erregistratutzat hartuko da eskaeraren erregistroaren datan, dokumentazio guztiarekin).

Diru-laguntza ematen edo ukatzen duen Gernika-Lumoko Lanbide-Ekimenen lehendakariaren ebazpenak amaitutzat emango du administrazio bidea, eta horren aurka jakinarazpena hartzen den hurrengo egunetik hasita, hilabeteko epe barruan berraztertze errekurtsoa jarri lezake edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, jakinarazpena hartzen den hurrengo egunetik hasitako 2 hilabeteko epe barruan, Gernika-Lumoko administrazioarekiko auzi-epaitegian.

14. Oinarria. — Diru-laguntzen berri ematea

Emandako diru-laguntzen zerrenda Gernika-Lumoko Lanbide-Ekimenak agentziaren webgunean argitaratuko da, baita enpresa edo pertsona onuradunena eta zenbatekoak ere.

15. Oinarria. — Diru-laguntzak aldatzea

Diru-laguntzak emateko kontuan izandako baldintzak aldatuz gero, eman zireneko ebazpenak aldatzea ekar lezake horrek berarekin; edonola ere, oinarri hauetan ezarritako baldintzetara moldatu beharko da aldakuntza.

16. Oinarria. — Kontrolatu, ebaluatu eta ikuskatzea

Gernikako Udalak, Lanbide Ekimenen bidez, beharrezkoak diren kontrol eta ebaluazio lanak egin ahal izango ditu, emandako laguntzak aurreikusitako xedeetarako bideratzen direla bermatzeko.

17. Oinarria. — Indarrean sartzea

Oinarri hauek eta diru-laguntzen deialdia indarrean sartuko dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren hurrengo egunean.

**18. Oinarria. — Konfidentzialtasun klausula**

Diru-laguntza eskabidea aurkeztean, erakunde eskatzaileak onartu egiten du eta adierazi deialdian ezartzen diren baldintza guztiak betetzen dituela eta bere xehetasun guztiak onartzen dituela.

Era berean, azaltzen du, eskabidean azaltzen diren datu pertsonalak bere onetsiarekin biltzen direla eta hori onartzen duela. Datu hauek automatizatu egingo dira eta udal honek behar den moduan baimendutako fitxategietan sartuko direla eta fitxategi horiek udal kudeaketarako baino ez direla erabiliko baimentzen duela. Beste herri administrazio batzuei edo beraien erakundeei helarazi edo komunikatu ahal izango dira Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak aurreikusitako kasuetan.

19. Oinarria. — Diru-laguntzak itzultzea

Jasotako kopuruak itzuli egin beharko dira, baita, diru-laguntza ordaintzen denetik sortutako interes legalak ere, laguntzen onuradun diren pertsonak/enpresak oinarri hauetan, emate ebazpenean nahiz aplikagarri suertatzen diren gainerako arauetan ezarritako baldintzak urratzen badituzte; guztia ere, dena delako urraketaren ondorioz bidera litzakeen bestelako ekintzak gorabehera.

Dagozkien ondorio legaletarako, itzuli beharreko kopuruak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat joko dira.

Kudeaketa, kontrol edo ikuskatze lanetan diru-laguntza modu ezegokian eskuratu dela antzematen bada, edo oker erabiltzen ari direla, hala jasoko da dossierrean eta, horrenbestez, beharrezko diren kautelazko neurriak hartu ahal izango dira.

20. Oinarria. — Araudi erregulatzaileria

Deialdi honetako araudi erregulatzaileria honakoa izango da:

- Enplegua Sustatzeko Toki-ekintzetarako diru-laguntzen Agindua (EHAA, 2018ko ekainaren 13an).
- Abenduaren 17ko diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra (EAO 2003ko azaroaren 18an).
- Diru-laguntzen Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen, ekainaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua (EAO 2006ko uztailaren 25ean).
- Bere kasuan, Gernikako Udalaren diru-laguntzak emateko Ordenantza erregulatzaileria.